




AGUI HASI FORA GOBERNUKO BATZAR BOCUNTEKIN PIRADO POR ACUERDO DE
ORDENADO DO EGOI HONETAN: JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE FECHA:

6 MAR. 2018
Idazkari nagusia / Secretario General
Idazkaritza
Secretaria

AIBOA BERRIA ERAIKINEKO LEHIAKETARAKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA


L:\ARKITEKTURA\UDAL ERAIKINAK\02 NUEVAS OBRAS (a partir de octubre 2011)\AIBOA\2013-001 PROYECTO AIBOA
BERRIA\02 PLIEGO AIBOA BERRIA\AIBOA BERRIAREN PLEGUA (1).doc



0103 3AM 0 -

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
I. KAPITULUA. BALDINTZA OROKORRAK	4
1. KONTRATUAREN XEDEA	4
1.1. PLAN OROKORRA ALDATZEKO FASEA	4
1.2. OINARRIZKO PROIEKTUAREN FASEA	4
2. JARDUKETA EREMUA	9
3. HIRIGINTZA INFORMAZIOA	9
4. AFEKZIOAK	11
5. ARAUDIA	12
5.1. ESTATUKO ARAUDIA	12
5.2. ERKIDEGOKO ARAUDIA	13
II. KAPITULUA. LANAK	14
6. AURREKARIAK ETA HELBURUA	14
7. BEHARRIZANEN PROGRAMA	14
7.1. BILTEGIA	15
7.2. BIDEEN BRIGADARAKO PROGRAMA	16
7.3. SANEAMENDUKO BRIGADARAKO PROGRAMA	16
7.4. UREN BRIGADARAKO PROGRAMA	17
7.5. ERREMENTARIRAKO PROGRAMA.	17
7.6. TAILER MEKANIKORAKO PROGRAMA.	18
7.7. IBILGAILUEN PARKERAKO PROGRAMA.	18
7.8. OBRA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADARAKO PROGRAMA	19
7.9. ADMINISTRAZIO-LANETAKO LOKALETARAKO PROGRAMA	20
7.10. ALDAGELAK ETA ARAUZKO ATSEDENETARAKO EREMUA	20
7.11. ZERBITZU ETA BALDINTZATZAILE KOMUNAK	20
7.12. SINDIKATUETARAKO LOKALAK	21
7.13. ARTXIBOA	21
8. ZEB.	23
8.1. DEFINIZIOAK.	23
8.2. PROPOSAMENAREN ZEHAZTAPENAK.	23
8.3. INPLEMENTAZIOAREN ESKEMA.	24
III. KAPITULUA. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHAR OROKORRAK	24
9. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK	24
9.1. ADJUDIKATUTAKO LANGILEAK	25
9.2. LAN-ANTOLAKETA	26
9.3. SEGURTASUNA ETA HIGIENEA	26
IV. KAPITULUA. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK	27
10. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.	27
11. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK	27
12. KONTRATU-BETEBEHARRAK	27
12.1. DATUEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULA	27
13. LANAK ZAINTEZA	28



V. KAPITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA	28
14. ZEHAPEN ARAUBIDEA	28
14.1. TIPIFIKAZIOA	28
14.2. ZEHAPENEN ZENBATEKOA.	29
VI. KAPITULUA. BESTE ALDERDI BATZUK	29
15. KONTRATISTAREN KAUDIMENA ETA SAILKAPENA	29
16. EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA	30
17. LIZITAZIOKO OINARRI-PREZIOA	30
18. KONTRATUAREN EPEAK	31
19. PRESTAZIOAK IKUSKATZEA	31
20. AGIRI TEKNIKOAK AURKEZTEA	32



I. KAPITULUA. BALDINTZA OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea Aiboa Berria eraikineko lehiaketa arautuko duten preskripzio tekniko bereziak definitzea da.

Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak agiri honetan eta haren eranskinetan adierazitakoaren arabera egingo dira.

Lehiaketa bakarra egingo da proiektu guztirako, eta bakarrik lanen zati bati buruzkoak diren proposamenak baztertuko dira.

Aiboa Berria eraikinerako ideien lehiaketako irabazleak proiektua garatzeko beharrezko plan orokorraren aldaketa, oinarritzko proiektua eta gaur egun existitzen den eraikina eraisteko proiektua idatziko ditu.

Prestatutako dokumentazioak lehiaketaren dokumentazio teknikoak eta lehiatzaileak Getxoko Udaleko ordezkarien eskutik idatziz jaso ditzakeen aginduak bete beharko ditu.

Horrenbestez, kontratu honekin garatu beharreko betekizunak honako hauek dira:


1.1. Plan Orokorra Aldatzeko Fasea

- Egiturako aldaketa puntual bat izapidetu eta onartzeko beharrezko agiri guztiak idaztea, ideien lehiaketako irabazleak diseinatutako eraikina egokitu ahal izateko.
- Plan Orokorraren aldaketaren dokumentuaren aldaketak, izapidetze-prozesuan zehar.
- Legeak eta Herritarrek Parte Hartzeko Planak aurreikusitako herritarren balizko parte-hartze bileretan bertaratzea.
- Aldaketa-espedientea izapidetu ondoren, testu bategina idaztea.

1.2. Oinarritzko Proiektuaren Fasea

- Oinarritzko proiektua idaztea eta, gutxienez, ondorengo alderdi hauek lantzea:
- Beharrian operatiboak tarteko, eraikina nahitaez bi fasetan eraikitzea planteatu da: Lehenengo fasean, 7.1, 7.2, 7.3, 7.4, 7.5, 7.6, 7.7, 7.8, 7.9, 7.10, 7.11 eta 7.12 ataletan adierazitako erabilera guztiak garatuko dira; bigarren fasean, berriz, 7.13 atalean aurreikusitako erabilerak garatuko dira. Horrenbestez, oinarritzko proiektuak baldintzatzaile hori kontuan izan beharko du.
- Net ZEB estrategia diseinu-metodoaren memoria. Plegu honetako zortzigarren atalari lotutako ekintza, instalazio eta diseinu-estrategiak deskribatzeko memoria prestatuko da; gauzatze-proiektuan ezarri beharko dira.
- Memoria. Honako atal hauek izango ditu:
 - Datu orokorrak
 - Proiektua identifikatzea eta xedea zehaztea.
 - Lanaren helburua.
 - Enkargua eskusiboki oinarritzko proiektuari dagokiola adieraztea.
 - Proiektuko eragileak.
 - Sustatzailea.
 - Proiektua egingo duten arkitektoak, izenekin eta elkargoan duten zenbakiekin.

- Kasu bakoitzean esku hartuko duten beste teknikari batzuk.
- Dokumentu osagarrien eta proiektu partzialen zerrenda, proiektu-egilea ez diren teknikari idazleak identifikatuz.
- Deskripzio-memoria.
 - Aldez aurreko informazioa: aurrekariak eta hasierako baldintzatzaileak.
 - Kokagunearen datuak (kalearen, plazaren eta abarren izena) eta katastroko erreferentzia.
 - Orubearen datuak:
 - Deskribapena (forma, mugak, azalera, orientabidea, altimetria, lerrokadurak eta bestelako ezaugarriak).
 - Bidezkoak badira, zortasunak.
 - Dauden hiri-zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuen sareak.
 - Ingurunearen ezaugarriak.
 - Ingurumen-ezaugarriak.
 - Hirigintza plangintza aplikagarria:
 - Indarrean dagoen planeamendu orokorra eta garapeneko, hala badagokio.
 - Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubide zehatzak erabilera onartzea.
 - Ordenantzak (aplikazio-parametroei erreferentzia eginez: eraikigarritasuna, altuera, okupazioa, atzeraemanguneak eta forma). Katalogazioa, hala badagokio.
 - Beharren programa: kontratatutakoaren arabera proiektua idazteko oinarri bezala hartu den programaren deskribapena.
- Proiektuaren deskribapena
 - Proiektuaren eta atxikitako kanpo espazioen deskribapen orokorra.
 - Aukeratutako eraikin ereduaren eta obraren ezaugarri nagusien deskribapena: eraikinerako, eraikineko ataletarako edo lokaletarako aurreikusitako erabileren zerrenda eta deskribapena; kanpoko espazioen deskribapena; eraikuntza sistemen aurreikuspen orokorra, eta datu ekonomiko garrantzitsuen azalpena, egonez gero.
- Eraikinaren deskribapena. Programa funtzionala. Sistemen deskribapen orokorra.
 - Sistemak hautatzea baldintzatzen duten gorabeheren edo parametroen deskribapena:
 - Egitura
 - Banaketa
 - Fatxadak
 - Bukaerak
 - Ingurumen egokitzapena eta zerbitzuei buruzkoa
- **Azaleren eta beste parametro batzuen zerrenda**
 - Erabileren arabera azaleren koadroak eta guztizkoak:
 - Erabilgarriak



- Eraikiak
- Hirigintzaren ikuspegitik konputagarriak
- Aukeratutako ereduaren hirigintza parametroetako laburpen taula:
 - Eraikinaren altuera (solairu kopurua)
 - Atzeraemanguneak edo banaketa mugekiko
 - Okupazioaren ehunekoa
 - Eraikigarritasuna
 - Altuerak (solairuen altuera, erlaitzak, etab.)
 - Hegal-zatiak.
 - Patioak
- Eraikina diseinatzean suteen kontrako babes eskakizunen eragina (sektoreak, ebakuazio ibilbideak, eskailerak, ateak, etab.).
- **Eraikinaren prestazioak:**
 - Eraikina bere prestazioak ondorengoak izateko (EKTaren oinarritzko eskakizunak betez) proiektatzen dela adierazten duen aitortpena:
 - Erabilera. Eraikinaren erabilerari buruzko baldintza funtzionalak.
 - Egiturazko segurtasuna. Eraikuntzan eta erabileran aurrez ikusi daitezkeen ekintza eta eraginen aurrean egiturazko portaera egokia izango du.
 - Suteen aurrean segurtasuna. Proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentze-lanen ezaugarriei erreparatuz, ustekabeko suteen ondorioz erabiltzaileen kalte-arriskua muga onargarrietara murriztuko du.
 - Erabilera eta irisgarritasunaren segurtasuna. Proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ezaugarriei erreparatuz, eraikinerako aurrez ikusitako erabileran erabiltzaileek berehalako kalteak jasateko arriskua muga onargarrietara mugatuko da. Halaber, pertsona desgaituak diskriminaziorik gabe, modu independentean eta seguruan erabiltzeko eta iristeko erraztasunak emango dira.
 - MD 3.5 Osasungarritasuna. Proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentze-lanen ezaugarriei erreparatuz, eraikinaren barruan eta erabileraren ohiko baldintzetan erabiltzaileek kalteak edo gaixotasunak izan ditzaten arriskua muga onargarrietara murriztuko da. Gauza bera gertatuko da eraikina bera eta bere ingurune hurbilean ingurumena kaltetzeko arriskuarekin.
 - Zarataren aurrean babesa. Proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz, eraikinaren barruan eta ohiko erabilera baldintzetan zaratak erabiltzaileei sor diezaikeen kalte edo gaixotasunen arriskua mugatuko da.
 - Energia aurrezteak. Energia eskea mugatzea. Proiektu, eraikuntza, erabilera eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz, energiaren kontsumoa muga iraunkorretara murriztuko da eta energiaren kontsumoari dagokion zati bat energia iturri berriztagarrietatik etortzea sustatuko da.



- Eraikinaren beste baldintza batzuk. Berariaz adieraziko dira sustatzailearen eta arkitektoaren artean adostutako prestazioak, hala baleude, EKTan xedatutako atalaseak gainditzen badira.
- Erabilera mugak adieraztea, bai eraikinerako, bai areto edo instalazio bakoitzerako. Hori guztia honakoaren arabera: aurrez ikusitako gainkargak edo proiektuan aurrez ikus daitezkeenak, jarduera zehatzak egiteagatik arriskuak deuseztatzea, eraikinaren edo areto zehatzen gehieneko okupazioa, OD SSak xedatutako baldintzekin bat, erabilera mugatzea gomendatzen duen bestelakoa.

▪ **Eraikuntza-memoria.**

- Eraikina eustea
 - Zimendua egitean kalkuluak kontuan hartzeko ezaugarri eta parametroen aurreikuspena.
- Aplikatu beharreko araudia (EKT eta beste arau batzuk betetzea).
 - Aplikatu beharreko araudi teknikoa betetzen dela berariaz aipatzea.
 - Diseinuan zuzenean eragiten duten oinarritzko dokumentuetako (OD) atalen bidez Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT) betetzen dela justifikatzea, zehazki honako hauen bitartez:

SI (sute kasuetako segurtasuna): ebakuazio-ibilbideak; eskaileren, korridoreen eta ateen zabalerak; independentzia-ataria, etab.

SUA (erabilera eta irisgarritasunaren segurtasuna): hutsuneak babestea, eskaileren ezaugarriak, lurzoruak, irisgarritasun-baldintzak, etab.

HS (Osasungarritasuna): barneko airearen kalitatea, hondakinak bildu eta hustea, etab.

Halaber, sutearen aurkako babesari buruzko beste arau batzuk betetzen direla justifikatuko da, horrelakorik badago (erkidego-mailan, udalerrri-mailan, etab.), baita irisgarritasunari buruzkoak eta hesi arkitektonikoak deuseztatzeari buruzkoak ere.

▪ **Memoriako eranskinak.**

- Planoak. Dokumentazio grafikoa. Eskalan eta mugatuak.
 - Dokumentazio grafikoaren aurkibidea.
 - Hirigintza eta ezarpen definizioa
 - Iparralde geografikoa adierazten duen kokapen planoak: indarrean dagoen plangintzari dagokiona, puntu kokatuari erreferentzia eginez.
 - Lurzatiaren kokapen planoak: indarreko plangintza aipatuz eta hirigintza justifikazioa (lerrokadurak, atzeraemanguneak, mugak, zortasunak eta bestelako baldintzatzaileak, kasuak kasu).


7



- Urbanizazio plana: bideen sarea, udal sareekiko hartuneen kokapena, etab.
- Eraikinaren definizio arkitektonikoa
 - Banaketaren planta orokorrak eta estalkiak, eraikinak arrazoizko egitura konponbidea izan dezakeela adieraziz. Honakoak azalduko dira: erabilera, aparatu sanitarioen eta bainuko nahiz sukaldeko ekipoen banaketa. Kota orokorrak eta azalera eraikiak nahiz guztizkoak adieraziko dira. Gutxieneko eskala: 1/100.
 - Fatxada bakoitzeko altxaera: altuera totalak mugatzea; 1/100 eskala minimoa.
 - Zeharkako eta luzerako sekzioak: bat komunikazio gune bertikaletatik; bestea aurrekoarekiko perpendikularra. Gutxieneko eskala: 1/100.
- SI sute kasuetako segurtasuna.
 - Suhiltzaileek esku hartzea eta eraikinaren kanpoko ebakuazioa.
 - Eraikina banatzea eta sutearekiko egituraren erresistentzia.
 - Ebakuazioa
 - Suteen kontrako babes instalazioen kokapena
- EIS Erabilera eta irisgarritasunaren segurtasuna
 - Erorien arriskuaren aurrean segurtasuna.
 - Kolpe edo harrapaketa arriskuaren aurrean segurtasuna.
 - Barrutietan lotua gelditzeko arriskuaren aurrean segurtasuna.
 - Okupazio altuko egoerengatik arriskuaren aurrean segurtasuna. Harmailetan: aldapa, lerroen luzera, zabalerak, gehieneko kotaren desberdintasuna eta babes hesiak.
 - Itotzeko arriskuaren aurrean segurtasuna.
 - Ibiltzen ari diren ibilgailuek sortutako arriskuaren aurrean segurtasuna.
 - Irisgarritasuna.
- Aurrekontua
 - Kapituluaren arabera gutxi gorabeherako aurrekontua: kapituluaren arabera balioztapen orokorra, gauzatze materialaren balioa eta azkeneko laburpena adieraziz.
- Proiektuaren aldaketak, URA eta Errepideen Zerbitzuaren kalte-txostenen ondorioz.
- Segurtasun- eta osasun-azterlana.

ERAISPEN FASEA

- Eraikina eta lurzatiaren barrutian dauden gainerako eraikin guztiak eraisteko proiektua idaztea.
- Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana idaztea
- Segurtasun eta Osasuneko Oinarrizko Azterlana idaztea, edo Segurtasun edo Osasun Azterlana (eraispén proiektuaren zenbatekoaren arabera).
- Eraispén obraren zuzendaritza
- Eraispén obraren azken dokumentazioa





- Eraispeneren fasean hondakinak kudeatzeari buruzko dokumentazioa kontrolatzea.
- Lanetako eraikuntza eta eraispeneren hondakinak dekretu honetan, eta, bereziki, hondakinen kudeaketari buruzko azterketan jasotako baldintzetan kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa izatea.
- Hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko azken txostena egitea, 112/2012 Dekretuak adierazten duen eduki eta irismenarekin.

Lizitatzailaren jarduketa guztiak une bakoitzean indarrean dagoen araudiarekin bat gauzatuko dira, eta adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da xedapen tekniko horiei erreparatzea eta horiek betetzea.

2. JARDUKETA EREMUA

Makaleta etorbideko 56. zenbakian kokatutako udal jabetzako lurzattia hartu da jarduketa eremu gisa. Txosten honen I. Eranskinean kokapeneren planoa eta lurzatiaren plano topografikoa atxiki dira.

3. HIRIGINTZA INFORMAZIOA

Finka dagoen lurzorua hiri-lurzor bezala sailkatuta dago, ekipamendu publikoko sistema orokor gisa kalifikatuta, 14. zenbakidun "Gobeloki" eremuaren barnean, indarrean dagoen Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearekin bat etorriz.

Jarraian jaso dira lurzatiari eragiten dioten hirigintza-parametroak:

- Gutxieneko orubea: 600 m².
- Gehieneko okupazioa: %25
- Eraikineren gehienezko altuera: 3 solairu
- Mugakideetarako muga: 4 metro
- Eraikineren arteko bereizketa: 8 metro
- Sabai-koefizientea sestraren gainean: 0,60 m²/m².
- Banaketa arearen eredu-aprobetxamendua: 0,63 m²/m²

Ondorengo taulan plan orokorrak aurreikusten dituen erabileren zerrenda erakusten da, eta haietatik zein baimendu daitezkeen eremuan:

Ez = Baimendu gabea.


O = Onartua

Bereizg. = Bereizgarria

	14 GOBELOKI
1. LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK	EZ
2.4. GASOLINA-ZERBITZUGUNEA	EZ

U. B. A. 14/15 9

4.1. HIRI ZERBITZUAK	O
4.2. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK	O
4.3. KIROL EKIPIAMENDUA	O
4.4. IRAKASKUNTZA EKIPIAMENDUA	O
4.5. OSASUN EKIPIAMENDUA	O
4.6. ERLIJO EKIPIAMENDUA	O
4.7. LAGUNTZA EKIPIAMENDUA	O
4.8. AISIALDIKO EKIPIAMENDUA	O
4.9. EKIPIAMENDU SOZIOKULTURALA	O
4.10. HIRUGARREN SEKTOREKO EKIPIAMENDUA	O
5.1.A. ETXEBIZITZA ATXIKIA	O
5.1.B. ISOLATUTAKO FAMILIA BAKARREKO ETA BI FAMILIAKO ETXEBIZITZA	O
5.2. ETXEBIZITZA KOLEKTIBOA	BEREIZG.
5.3. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA	O
5.4. EGOITZA KOMUNITARIOA	O
5.5. HOTEL MOTAKOA	O
6.1.1. ETXEBIZITZAREKIN PARTEKATUTAKO BULEGOA	O
6.1.2. GAINERAKO BULEGOAK	O
6.2.1. MERKATARITZA IZAERADUNAK	O




6.2.2. OSTALARITZA ERABILERA	O
6.3. MERKATARITZA KONTZENTRATUA	EZ
7.1.1. ETXEBIZITZA BARNEAN ONARTUTAKO INDUSTRIA	O
7.1.2. ETXEBIZITZAREKIN BATERAGARRIA DEN INDUSTRIA	O
7.1.3. ETXEBIZITZAREKIN BATERAEZINA DEN INDUSTRIA	EZ
7.1.4. BESTELAKO INDUSTRIAK	EZ
7.2. ETXEBIZITZAREKIN BATERAGARRIA DEN BILTEGIA	EZ
7.3. ETXEBIZITZAREKIN BATERAEZINA DEN BILTEGIA	EZ
8.1. EREMU BÉRDEAK	O
8.2. OINEZKOEN EREMUAK	O
8.3. ESPAZIO LIBREAK/JAB. PRIBATUA	O

Lurzatiaren eraikigarritasun- eta altuera-parametroak ez dira nahiko plegu honetan adierazitako programari erantzuna emateko; horregatik, Plan Orokorrean aldaketa bat egitea beharrezkoa dela planteatu da, plegu honetan adierazitako beharrianen programa hartu ahal izateko.

4. AFEKZIOAK

Bizkaiko errepideen foru sareari dagokion bidezubi bat dago lurzatiaren ipar-ekialdeko muga, eta horrek eraikinen kokapena baldintzatzen du lurzatiaren barruan; horrenbestez, proposatutako eraikina diseinatzeko jabari publiko, zortasun eta afekzioko ildoetarako arauz ezarritako baldintzatzaileak aintzat hartu beharko dira.



Proposamenak aurkezteko unean indarrean dagoen errepide-araudiak ezarritakoa urratuz gero, proposamena LEHIAKETATIK KANPO UTZIKO DA; izan ere, araudia urratzeak eragotzi egiten du planteatutako proposamena gauzatzea. Baldintzen plegu hau idatzi den unean errepideei dagokienez indarrean dagoen eta bete behar den araudia honako testu hauek osatzen dute:

- 2/2011 FORU ARAUA, martxoaren 24koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa.
- 8/1999 FORU ARAUA, apirilaren 15ekoa, Bizkaiko Errepideen Arloko Lurralde Plana onartu zuena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2013 FORU DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa; horren bitartez, Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauko III-IV bitarteko kapituluak garatzen dituen erregelamendua onartzen da.

Horrez gain, Gobela ibaia lurzatiaren hego-ekialdeko mugatik igarotzen da; hala, horrek ere lurzati barruan eraikinek daukaten kokapena baldintzatuko du; horrenbestez, aintzat hartu beharko dira babes-lerroetarako araudiz ezarritako baldintzatzaileak, T10 10 urteko birgertatze-aldirako ur azpian geratutako areako lerroa, T100 100 urteko birgertatze-aldirako ur azpian geratutako areako lerroa eta T500 500 urteko birgertatze-aldirako ur azpian geratutako areako lerroa.

Proposamenak aurkezteko unean indarrean dagoen ibai eta erreken araudiak ezarritakoa urratuz gero, proposamena LEHIAKETATIK KANPO UTZIKO DA; izan ere, araudia urratzeak eragotzi egiten du planteatutako proposamena gauzatzea.

Baldintzen plegu hau idatzi den unean ibai eta errekei dagokienez indarrean dagoen eta bete behar den araudia honako testu hauek osatzen dute:

- 415/1998 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Kantauriko isurialdeko LAP behin betiko onartzen duena.
- 449/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena.

Txosten honen II. Eranskinean URAko GeoEuskadi bisorearekin lortutako planoak atxiki da; bertan, birgertatze-aldietarako aipatutako lerroak ageri dira.

5. ARAUDIA

Lizitatzaillearen jardura guztiak unean uneko indarreko araudiaren arabera egingo dira; esleipendunaren (edo esleipendunen) erantzukizuna izango da xedapen horiek bete eta zaintzea, eta, bereziki, honako hauek:

5.1. Estatuko araudia

31/1995 LEGEA, Lan arriskuak prebenitzekoa.

1627/1997 ERREGE DEKRETUA, Segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak eraikuntza obretan.

LAN MINISTERIOAREN AGINDUA, Lanerako segurtasun eta higienarako ordenantza orokorra.



LAN MINISTERIOAREN AGINDUA, Eraikuntza industriaren lanerako segurtasun eta higie araudia.

485/1997 ERREGE DEKRETUA, Lantoki eta lokaletako segurtasun seinaleei buruzko arauak.

486/1997 ERREGE DEKRETUA, Segurtasuna eta osasuna lantokietan.

487/1997 ERREGE DEKRETUA, Arriskuak eragiten dituen, zehazki bizkaraldean eta gerrialdean, kargen eskuzko manipulazioa.

614/2001 ERREGE DEKRETUA, Arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenak.

286/2006 ERREGE DEKRETUA, Zaratarekin lotutako arriskuen aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko.

773/1997 ERREGE DEKRETUA, Langileek babes indibidualeko ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak.

1215/1997 ERREGE DEKRETUA, Langileek lan ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak.

15/1999 LEGE ORGANIKOA, Datu pertsonalak babesteko.

1720/2007 ERREGE DEKRETUA, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duena.

505/2007 ERREGE DEKRETUA, Espazio publikoetara eta eraikinetara sartu eta erabiltzeko orduan ezintasunen bat duten pertsonen irigarritasunerako eta bereizkeriarik ezerako oinarritzko baldintzak.

314/2006 ERREGE DEKRETUA, Eraikuntza Kode Teknikoa (EKT).

1481/2001 ERREGE DEKRETUA, INGURUMEN MINISTERIOKOA. Hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duena.

105/2008 ERREGE DEKRETUA, PRESIDENTZIAREN MINISTERIOKOA. Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen ditu.

5.2. Erkidegoko araudia

49/2009 DEKRETUA, INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUKO SAILARENA.

112/2012 DEKRETUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILARENA. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

20/1997 LEGEA, Irigarritasuna sustatzeko.



68/2000 DEKRETUA, Hiri guneen, herri guneen, eraikuntzen eta informazio eta komunikabideen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZAREN EBAZPENA. Euskal Autonomia Erkidegoko lan arriskuen prebentziorako eta osasunerako lanbide arteko erabakiaren erregistroa eta argitalpena.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZAREN EBAZPENA. Lan, segurtasun eta osasun ikuskaritzaren bisita liburuaren eredu.

JUSTIZIA, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREN 142/2008 DEKRETUA. Euskadin eraikuntzaren sektorean enpresa egiaztatuen erregistroa sortu eta haren funtzionamendua arautzen duena.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREN AGINDUA. Obra hasi aurreko oharren, lantokien irekieraren edo jardura berriz martxan jartzearen, prebentziozko antolaketa modalitatearen eta prebentzio sistemako entzunaldi salbuespenaren jakinarazpenei buruzko lan dokumentazioa telematikoki aurkeztu eta tramitatzeko prozedura.

II. KAPITULUA. LANAK

6. AURREKARIAK ETA HELBURUA

Helburua Makaleta etorbideko 56. zenbakian kokatutako eraikina eraisteko obra proiektua idatzi eta lanak zuzentzeko zerbitzu teknikoak kontratatzea da, eta zenbait udal erabilera hartuko dituen eraikin berria eraikitzea, plegu honetako beharrianen programan oinarrituz.

7. BEHARRIZANEN PROGRAMA

Beharrianen operatiboak tarteko, eraikina bi fasetan eraikitzea aurreikusi da: Lehenengo fasean, 7.1, 7.2, 7.3, 7.4, 7.5, 7.6, 7.7, 7.8, 7.9, 7.10, 7.11 eta 7.12 ataletan adierazitako erabilera guztiak garatuko dira; bigarren fasean, berriz, 7.13 atalean aurreikusitako erabilerak garatuko dira. Horrenbestez, oinarritzko proiektuak baldintzatzaile hori kontuan izan beharko du.

NAHITAEZKOA izango da egindako proposamenak proiektua bi fasetan garatzeko aukera ematea. Horretarako, lizitatzailleek, azalpen memorian, proposamena adierazitako bi faseetan garatzea azalduko duen atal bat jaso beharko dute.

Aipatutako faseak jasotzen ez badira, proiektua egitea bideraezina izango da; horrenbestez, baldintzatzaile hori betetzen ez duen edozein proposamen automatikoki baztertuko da.

7.1. Biltegia

Zamalanetarako lau eremu izango ditu, bi edukiera ertaineko kamioietarako, eta beste bi brigadetako furgonetek erabiltzeko.

Kaian zamalanak egiteko makineria eta ekipamendua jartzeko nahikoa espazio aurreikusiko da.

Eraginkortasun handiagoko gaur egungo sistemetan oinarritutako biltegitratze-sistema bat proposatuko da, eta, horrela, denbora errealean kontrolatu ahalko da kanpo hornitzaileek emandako materiala, biltegian dagoen materiala, materialaren kokapena, brigadei materiala ematea eta materiala berriz jartzeko erosketa-eskaeren kudeaketa.

Kanpotik sarbide zuzena izango du zamalanen kaietara, eta, halaber, ate automatikoak izango ditu.

Pieza luze eta pisutsuen zamalanetan udal ibilgailuetarako nahikoa galibo izango du.

Biltegi horren beharrianen programa hauxe izango da:

1. Administrazio-eremua; bertatik biltegitratutako materialaren stockage-kontrola zuzenduko da, materiala jasoz, biltegian banatuz eta brigadei emanez.
2. Biltegitratze-azalerak zubi-garabi bat edota polipastoak izango ditu biltegitratutako edozein material kargatzeko eremura garraiatzeko, edo kargatzeko eremutik biltegitratze-eremura eramateko.
3. Pilaketa-eremua; paletetan pilatutako materialera sarbidea izango du.
4. Pilaketa-eremua, legarretarako.
5. Pilaketa-eremua, baldosetarako.
6. Hondakinak kudeatzeko lau edukiontzirako eremua.
7. Hormigoi makinak eta astoak pilatzeko eremua.
8. Baliabide osagarriak pilatzeko eremua, ponpak, mailu elektrikoak eta pneumatikoak, sorgailuak eta konpresoreak.
9. Paletetan bildutako kargak pilatzeko eremua, erregistro tapak, saretak, etab.
10. Paletetan bildutako kargak pilatzeko eremua, besteak beste, zementua, motrailua, adreiluak, blokea, etab.
11. Diametro desberdinetako PVCko tutuak pilatzeko eremua.
12. Ur Zerbitzuko FDko tutuak pilatzeko eremua
13. FDko pieza bereziak pilatzeko eremua
14. PE-100 pedaeko zorroak eta tutuak pilatzeko eremua
15. Atoia eta bigarren konpresorea gordetzeko eremua

Gutxi gorabehera 400 m²-ko biltegitratze-azalera aurreikusi da.

Biltegitratze-eremura soilik biltegia kudeatzeko langileak sartu ahalko dira; kanpoko langileak edo brigadetako kideak ezingo dira biltegitratze-eremura sartu.

Biltegiak honela funtzionatuko du:

- Materialak, piezak eta bestelakoak jasotzeko, enpresa hornitzaileko langileek elementuak zamalanen eremuan deskargatuko dituzte (kargatzeko kaia); bertan, biltegia kudeatzeko langileek hornidura jasoko dute, eta biltegitratu beharreko lekura eramango dute.
- Materiala brigadei emateko, biltegiko kudeatzaileek biltegitratze-eremura joko dute eta elementu, produktu, material edo kasuan kasukoa kargatzeko eremu batera arte garraiatuko dute (kargatzeko kaia); gainerako brigadetako langileek bertara sartzeko aukera izango dute, udal ibilgailuetan kargatzen laguntzeko.

Eskaerak, albaranak, administrazioaren kudeaketa eta bestelakoak administrazio-eremu komunetik egingo da.

[Handwritten signature]

7.2. Bideen Brigadarako Programa

1. Makineria eta erremintak uzteko lokala. Gutxi gorabehera 40 m²-ko lokala, estalia, brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegitratzeko. Apalak edo apalategiak.
2. Berreskuratzeko elementuak desmuntatu eta biltegitratzeko lokala. 60 m²-ko lokala, oinplano angeluzuzenekoa, estalia, berreskuratu beharreko elementuak desmuntatu eta biltegitratzeko: jesarlekuen hankak, jesarlekuen taulak eta listoiak, mugarriak, mutiloiak, urkilak, gomazko bandak, trafiko-seinaleak, kaleko plakak, informazio seinaleak, etab. Pisu handiari eusteko gai diren apalak egon beharko dira, seinale bertikalen zutoinak eta seinaleak jartzeko; 350 cm luze izango den lan-mahaia egon beharko da, eta beharrezko torloju- eta erreminta-elementuetarako biltegitratze-tiraderak.
3. Zurezko elementuak mekanizatzeko lokala. 50 m²-ko lokala, estalia; gutxienez 7 metro zabal izango da (mekanizatzeko elementu motak zehaztutako zabalera, 3 metroko luzera baitute), lodiera emateko, lixatzeko, etab. 250 cm-ko luzeradun bi lan-mahai izan beharko ditu, eta aire konprimitua eta hautsa ateratzeko sistema.
4. Pintura eta bernizak aplikatzeko lokala. 28 m²-ko lokala, oinplano angeluzuzena izango du eta estalita egongo da; trafiko-seinale, egitura, hanka, listoi, taula eta hiri-altzarietako elementuei pinturak eta bernizak aplikatzeko gasak ateratzeko sistemak eta elementuak izan beharko ditu. Gutxienez 250 cm-ko lan-mahai bat izan beharko du.
5. Pintatutako elementuak lehertzeko lokala. 15 m²-ko lokala, oinplano angeluzuzena izango du, gutxi gorabehera, estalita egongo da trafiko seinale, egitura, hanka, listoi, eta hiri-altzarietako elementuen taulak margotu edota bernizatu ondoren lehertzeko.
6. Seinale bertikaletarako lokala. 30 m²-ko lokala, oinplano angeluzuzena izango du eta estalia izango da; seinale bertikalak eta horien osagarriak muntatzeko eta desmuntatzeko lokala izango da, pisu handiari eusteko gai diren apalak edota apalategiak izango ditu seinaleak eta seinale bertikalen zutoinak jartzeko; 350 cm-ko luzeradun lan-mahaia eta beharrezko elementuak biltegitratzeko tiradera higigarriak izango ditu.
7. Erabiltzen ari diren pintura eta bernizak gordetzeko lokala. Gutxi gorabehera 15 m²-koa, estalia eta gasak ateratzeko sistemaduna; hiri-altzarien eta bideetako seinale horizontalen mantentze-lanetan erabilitako pinturak eta bernizak gordetzeko erabiliko da; apalak edo apalategiak izan beharko ditu.
8. Berreskuratu eta berriz erabiltzeko elementuak muntatzeko lokala. 40 m²-ko lokala, estalia, 250 cm-ko bi lan-mahai izango ditu berreskuratutako jesarlekuak, seinaleak eta beste elementu batzuk muntatzeko eta berriz erabiltzeko.
9. Kutsadura kendu aurretik laneko arropa gordetzeko lokala. 10 m²-ko lokala

Lokal horietan guztietan soilik BIDEEN BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.

7.3. Saneamenduko Brigadarako Programa

1. Makineria eta erremintak uzteko lokala. Gutxi gorabehera 45 m²-ko lokala, estalia, brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegitratzeko. Apalak edo apalategiak, eta 2 metroko lan-mahaia.

 16

2. Saneamendua Segurtasun Bereziko Biltegitratze-lokala. Gutxi gorabehera 15 m²-ko lokala, estalia, saneamenduko material berezia gorde eta zaintzeko: sustraiak moztekoa, gas detektagailuak, tripodeak eta segurtasuneko arnesak, estankotasun gailuak, etab. Apalak edo apalategiak.
3. Material handiak biltegitratzeko lokala: 100 m² inguruko lokala, estalia, saneamenduko material bereziak zaindu eta gordetzeko, estalkiak eta sareak, material birziklatua, tutu berriak (piezak 6 metrokoak dira, eta diametroak ø160mm eta ø600mm artekoak). Apalak edo apalategiak.
4. Bide Publikoetako Materialerako Lokala. 200 m²-ko lokala, estalia, hormigoizko edo zementuzko hesiak gordetzeko, plastikozkoak, altzairuzkoak, seinalizatzeko konoak, zementua, baldosak, harea, aglomeratu bituminozkoa, etab. Apalak edo apalategiak.

Lokal horietan guztietan soilik SANEAMENDUKO BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.

7.4. Uren Brigadarako Programa

1. Makineria eta erremintak uzteko lokala. Gutxi gorabehera 45 m²-ko lokala, estalia, brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegitratzeko. Apalak edo apalategiak, eta 2 metroko lan-mahaia.
2. Material Handiak Biltegitratzeko Lokala: Gutxi gorabehera 100 m²-ko lokala, estalia, uren material berezia gorde eta zaintzeko: balbulak, hidranteak, iturriak, ureztatzeko harguneak, konpontzeko zorroak, etab. Birziklatutako materiala, polietilenoazko tutuak, fundizio berriko tutuak (piezak 6 metrokoak dira eta diametroak ø160mm eta ø250mm artekoak). Apalak edo apalategiak.

Lokal horietan guztietan soilik UREN BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.

7.5. Errementarirako Programa.

Biltegitratze Eremua.

Zamalanetako kaiaren kanpotik sarbide zuzena izango du, eta ate automatikoak izango ditu. Zamalanetako kaiak biltegiko kasuan kasukoekin partekatu ahalko dira, eta udalean eskuragarri dauden ibilgailuetarako galibo aproposa izango dute, baita pieza luze eta pisutsuak kargatzeko eta deskargatzeko ere.

Gutxienezko biltegitratze-eremua 10x7 m-koa izango da (6 metroko luzerako profilak eta 2x1 m-ko txapak), eta tailerreko lan-eremuarekin lerroatutako euskarri egokiak izango dira (mahaiak, zerra, txapa moztekoa, etab.).

Zamalanetako kaia, biltegitratze-eremua, eta laneko eremuen artean materialak garraiatzeko errete-polipastoak.

Errementari-tailerra

1. Errementaritzako Segurtasun Bereziko Biltegitratze-lokala. Gutxi gorabehera 15 m²-ko lokala, estalia, errementaritzako material berezia gorde eta zaintzeko: apalak edo apalategiak.
2. Erremintak Biltegitratzeko Lokala. Gutxi gorabehera 20 m²-ko lokala, estalia, errementaritzako erremintak gorde eta zaintzeko: lan mahaia, armairuak eta makineriarako apalategiak, erreminta kutxak, ordezkoko pieza zehatzak eta tiradera edo kutxa handia.



3. Errementaritza Lanetarako Lokala. 90 m²-ko lokala, irekia eta estalia; zuzeneko lotura izango du biltegiatze-eremuarekin, ate automatikoen bitartez, espazioari jarraipena ematea ahalbidetuz; profil eta pieza luzeetarako lan-mahaia izango du (biltegiarekin eta profilak mozteko zerrarekin lerrokatuta), perimetro osoan aire konprimituko zirkuitua izango du (tailer mekanikoarekin partekatuta), soldatze-eremua airea ateratzeko aukerarekin (2 lan-mahai, gutxienez batek tornuzila izango du) eta makineria hau sartzeko aski espazio izan beharko du: oin-zulagailua eta osagarrien mahaia, metalezko zerra (profilak), bi esmeril makina, ingudea, mozketak eta soldadura oxiazetilenikoko ekipoa (botilak karroan, sopletea, etab. eta keak ateratzeko sistema duen esparru independentea), arkuzko soldadurako makinak (industrialak, sorgailua ibilgailuan eta entxufa daitekeen eramangarria), txapa moztekoa, txapak tolesteko gailuak eta altzairu herdoilgaitzerako soldadura ekipoa eta tutu bereziak.

Lokal horietan guztietan soilik ERREMENTARITZA BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.

7.6. Tailer Mekanikarako Programa.

Kanpotik sarbide zuzena izango du, eta ate automatikoak izango ditu. Ibilgailu handiagoetarako galibo egokia izan beharko du.

1. Hiru ibilgailu aldi berean konpontzeko espazioa izango du. Ibilgailu arinetarako bi jasotzaile eta kamioien mantentze-lanetarako zulo bat hartzeko espazioa; zuloa kamioi handienerako ere baliagarria izan beharko da. Bidenabar, konpondu beharreko ibilgailu bakoitzetik gertu egongo den lan-mahairako espazioa gordeko da.
2. Aire konprimituko zirkuitua ere jarri beharko da, konponketa-espazio bakoitzeko aire harguneekin; instalazio osoa hartuko du eta ongi funtzionatzea bermatzeko beharrezko elementuak izan beharko ditu.
3. Eskuzko garabia edo erreia, elementu pisutsuak, motor-piezak edo pisu handiko beste batzuk desmuntatzeko.
4. Presiopean garbitzeko makinetarako (Karcher) elektrizitate- eta ur-hartuneak, xurgagailu industrialak eta mahuka-hargunea.
5. Katu hidraulikoak kokatzeko aurreikuspena, ibilgailuen argiak frogatzeko ekipoa, piezak ateratzeko prentsa, piezak garbitzeko, balbulatxoaren ponpa eta depositua, koipe ponpa eta depositua, motor olioko ponpa eta depositua, motorreko olio ateratzeko xurgagailua eta depositua, olioeko bidoiak eta erabilitako produktuak, gurpilen presioa egiaztatzeko aire hargunea, gurpilak kentzeko gailua, mekanikaren diagnosi ekipoa eta gurpilen orekarako makina.
6. Makineria eta erremintak uzteko lokala. Gutxi gorabehera 20 m²-ko lokala, estalia, makineria eta erremintak gorde eta zaintzeko: Erreminten tiradera, apalak edo apalategiak, eta 2 metroko lan-mahaia.
7. Konketa.

Lokal horietan guztietan soilik TAILER MEKANIKOKO BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.

7.7. Ibilgailuen Parkerako Programa.

8. Brigaden ibilgailuen parkerako aparkaleku estalia aurreikustea eskatuko da. Brigaden parke mugikorra honetan datza:
 - a. Bi kamioi (8100x3100 mm)
 - b. Bi kamioi (7200x3000 mm)

 18

- c. Hiru kamioi arin (6300x2400 mm)
 - d. Bost furgoi (5600x2500 mm)
 - e. Lur orotarako ibilgailu bat (4600x2000 mm)
 - f. 17 furgoneta/auto (4400x2200 mm).
 - g. Bi ibilgailu arin (3600x1700 mm)
 - h. Dumper bat.
9. Ibilgailuak garbitzeko eremua; edozein tamainako ibilgailurako erabilgarria izan beharko da.
10. Ibilgailu elektrikoetarako kargatzeko puntuak aurreikustea.

Udal brigada guztietako kideak baino ezingo dira sartu aparkaleku estalira.

7.8. Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako Programa

1. Iturgintzako Tailer eta Biltegirako Lokala. 80 m² inguruko lokala, estalia, eraikinetan instalazioak egin aurretik iturgintza-lanak egiteko; lokalean brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegiratuko dira. Apalak edo apalategiak, 2 metroko lan-mahaia eta erreminta eramangarrirako armairua.
2. Elektrizitateko Tailer eta Biltegirako Lokala. 80 m² inguruko lokala, estalia, eraikinetan instalazioak egin aurretik elektrizitate-lanak egiteko; lokalean brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegiratuko dira. Apalak edo apalategiak, 2 metroko lan-mahaia eta erreminta eramangarrirako armairua.
3. Pinturako Tailer eta Biltegirako Lokala. 80 m² inguruko lokala, estalia, eraikinetan instalazioak egin aurretik pintura-lanak egiteko; lokalean brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegiratuko dira. Apalak edo apalategiak, 2 metroko lan-mahaia eta erreminta eramangarrirako armairua.
4. Igeltserotza Tailer eta Biltegirako Lokala. 80 m² inguruko lokala, estalia, eraikinetan instalazioak egin aurretik igeltserotza-lanak egiteko; lokalean brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegiratuko dira. Apalak edo apalategiak, 2 metroko lan-mahaia eta erreminta eramangarrirako armairua.
5. Aroztegiko Tailer eta Biltegirako Lokala. 200 m² inguruko lokala, estalia, eraikinetan instalazioak egin aurretik arotzeri-lanak egiteko; lokalean brigadako kide guztiek erabilitako makineria eta erremintak gorde eta biltegiratuko dira. Tailer horretan gaur egun existitzen den aroztegi-makineria instalatuko da; honetan datza: tupia, eskuila, zinta-zerra, eskuairagailua, loditzeko makina, eskopleagailua, inglete-gailu finkoa, inglete-gailu metalista, eta xurgatze zentralizatua kanpoaldera. Apalak edo apalategiak, eta 2 metroko hiru lan-mahaia.
6. Aroztegiko Tailer eta Biltegirako Lokal Osagarria. Aroztegiko Tailerretik sarbide zuzena izango duen 20 m²-ko lokala, apal edo apalategiekin.
7. Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako Biltegia 1.000 m²-ko lokala, hesiak, agertokiak, hauteskundeetako materiala eta bestelakoa biltegiratzeko. 50 edo 100 m²-ko unitateen multzokatzeko aukerarekin.

Lokal horietan guztietan soilik OBRA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADAKO kideak sartu ahalko dira.



7.9. Administrazio-lanetako lokaletarako programa


1. Eraikinean egongo diren zerbitzu guztiak kudeatzeko administrazio-lan guztiak hartuko dituen eremu komuna aurreikusi da. Horretarako, espazio ireki bat aurreikusi da, manpara-sistema baten bitartez birkonfiguratu ahalko dena; hala, atal honetako programa malguagoa izango da.
 2. Jarraian jaso da aintzat hartu beharreko programa:
 3. Saneamendu eta Uren Bulegorako Lokala: sei lanpostu izango ditu, ordenagailuekin, baita inprimagailu-ploter bat instalatzeko lekuarekin ere; planoak eta bulegoko bestelako materiala gordetzeko armairuak eta apalak izan beharko ditu.
 4. Obra eta Zerbitzuak, Bideak, Biltegiko Bulegoko Lokala: sei lanpostu izan beharko ditu, ordenagailuekin; apalak eta armairuak ere izango ditu.
- Biltegiaren inguruan egon beharko da, materialak jaso edo horiek esleitu aurreko eskaera, albaran eta kudeaketak azkar eta elementuen hornitzaileekin koordinatuta egiteko.

7.10. Aldagelak eta arauzko atsedenetarako eremua

1. 100 langileentzako aldagelen gaitasuna aurreikusi da, dagozkien armairuekin, arropa eta elementu pertsonalak gordetzeko; honako aldiberekotasun hauek ere aurreikusi dira: 90 pertsonentzako gizonentzako aldagela, 10 pertsonentzako emakumeen aldagela, 100 armairu, aldagelen gaitasunaren arabera banatuta; aldagelen barruan arropa aldatzeko eremua erabiltzeko %100eko aldiberekotasuna, aldagelen barruan duxak erabiltzeko %25eko aldiberekotasuna.
2. Aldageletara udal brigadetako langileak baino ezingo dira sartu. Horretarako fitxatzeko txartel identifikagarriak irakurtzeko gailuak erabiliko dira.
3. Saneamenduko Brigadaren kasuan, zikinkeria handietarako aurre-aldagela bat ere egongo da. Lokalera soilik brigada horretako kideak sartu ahalko dira, eta zuzeneko lotura izango da, lokal horretatik, zikinkeria handia garbitu ondoren, aldagela nagusietara sartzeko.
4. Jantoki gisa office bat ere egongo da, lanaldietako nahitaezko atsedendietarako. Lokal horrek 30/35 pertsonentzako gaitasuna izango du, sukalde-gaineko barran 6 korrante-hargune izango dira mikrouhin-labeak erabiltzeko; harraska bat, mahaiak eta aulkiak ere izango dira.
5. Eraikineko garbiketa-zerbitzuetarako aldagela bat egongo da; lau pertsonentzako edukiera, lau armairu, duxa, baldeak betetzeko txorrot berezi bat eta ontziak, lanbasak eta bestelako garbiketa-produktuak gordetzeko gela gehigarri bat izango du.

7.11. Zerbitzu eta baldintzatzaile komunak

1. Laneko lokaletatik ibilgailuen kokalekura iristeko sarbidea zuzena izango da; horrela, tailer horietan eraiki edo ekoiztiko elementuak erraz eta esfortzurik gabe garraiatu ahalko dira ibilgailuetaraino, eta instalatu beharreko udalerriko lekura eraman ahalko dira.
2. Laneko leku guztiek WC komun eta bainugeletara sarbide erraz eta hurbila izan beharko dute.
3. Brigadetako kideen lan-arropa lehortzeko lokalak, euria eginez gero. Kanpoan lan egin behar duen brigada bakoitzeko 6 m²-ko gela bat egon beharko da: Bideen Brigada,



Saneamenduko Brigada, Uren Brigada, Errementaritza Brigada, eta Obra eta Zerbitzuen Brigada.

4. Arropa zikina uzteko sistema bat egongo da, baita arropak garbitegira bideratzeko sistema bat, garbitegira bideratu aurretik arropa hori biltegitartzeko sistema bat, garbitegiko kamioien zamaletarako sistema edo eremu bat, eta langileek arropa garbia jasotzeko sistema bat ere.

7.12. Sindikatueterako lokalak

Zortzi bulego prestatuko dira Getxoko Udaleko langileen ordezkari diren sindikatuentzat, zehaztasun hauekin:

- Bulego bakoitzaren azalera 20 m² baino txikiagoa izango da.
- Bulego bakoitzak bi lanposturako gaitasuna izango du, baita apalategietarako espazioa eta lau pertsonentzako bilera-mahai bat ere.
- Bilera-gela gehigarri bat ere egongo da, 15 pertsonentzako lekuarekin eta bulego guztietarako komuna.

7.13. Artxiboa

Udal artxiborako programa baldintzatzaile hauekin diseinatu behar da:

- Dokumentuen agiritegia eta langileen bulego eta lan-eremuak modu argian bereizi beharko dira.
- Bulegoen eta agiritegiaren artean eremu neutro bat egon behar da; segurtasun-espazio bat da, instalazioen agiritegia isolatzeko.
- Planteatutako diseinuak aintzat hartu beharko du Gobela ibaia handik gertu igarotzen dela eta, horrenbestez, agiritegiko funtsetan uholde-arriskua saihesteko diseinua proposatu beharko da.

Jarraian jaso da proposatutako programa:

1. SARBIDE PUBLIKOKO EREMUAK

55 m² inguruko espazioa behar da, honela banatuta:

- Ataria (erabiltzaileak artxibora iristeko sarrera) 15 m².

Nahikoa espazio egongo da, laneko eremu eta mostradore batekin, eta artxiboko informazioarekin.

- Kontsulta Gela (sarbide publikoa) 30m².

Gela zentroko zuzendaritzatik gertu egon behar da, zuzendaritzatik kontrol bisuala erraztu eta bermatzeko.

Artxiboaren lan-bolumenarekin bat etorritik, ezinbestekoa da kontsulta arruntak egiteko 12 plazako gutxieneko edukiera izango duen azalera aurreikustea.


Instalazioak: Espazio honek Internetera konektatzeko puntuak eta ordenagailu-terminalak izan behar ditu erabiltzaileentzat.

Mostradorea: Kontsulta Gelak mostradore bat izan beharko du, bertatik erabiltzaileek eskatutako agirien maileguak bideratzeko.

- Zuzendaritzaren Bulegoa 10 m².

Administrazioko langileen lan-eremutik eta Kontsulta Gelatik gertu egon behar da.

Bulegoan lan-bilerak egiteko mahai bat jarri behar da (4 pertsona).



2. SARBIDE MUGATUKO EREMUAK

- Artxiboko administrazio-langileentzako bulegoa 50m².

Zuzendaritzako bulegotik, Kontsulta Gelatik (akustikoki isolatuta baina bisualki kontrolatzeko aukerarekin) eta funtsak eta agiriak sailkatzeko gelatik gertu egon behar da.

Bakarka lan egiteko eremuak antolatzea ahalbidetu behar du.

Gutxi gorabeherako dimentsioa 10 m² erabilgarrikoa da langileko.

4 pertsonentzako lan-bileretarako mahai bat behar da.

- Material biltegia. 5m²

Kontsumigarriak biltegitatzeko espazioa (artxiboko kutxak, formatu desberdineko karpetak, etab.), apalekin.

- Artxiboko funtsak sartzeko zamaletarako kaia.

Espazio estalia, furgoneta bat sartzeko gaitasunarekin. Brigaden biltegi gisa erabiltzeko zamaletan kaian kokatu ahalko da; hala ere, artxiboko instalazioekin lotura erraz eta malgua izan beharko du.

- Harrera Gela. 20m²

Artxiboko materiala biltegitatzeko eta dokumentazioa iritsi eta deskargatzeko espazioa. Aretu honek zamaletako kaiarekin lotura izan behar du, eta apalak eta lanerako mahai bat izan beharko ditu.

- Dokumentazioa sailkatzeko aretoa: 20 m²

Administrazioko langileen bulegotik eta biltegietatik gertu.

- Erreprografia Aretoa 15 m²

Herritarrek eskatutako erreprografiak egiteko lan-espazioa.

Akustikoki isolatuta egongo da, eta Kontsulta Gelatik eta administrazioko langileen bulegotik gertu egongo da.

- Agirien Biltegia. 860 m²

Biltegia ezingo da sotoan egon; hezetasunaren, suaren, argiaren, hautsaren eta ingurumen kutsaduraren aurkako prebentzio-baldintza bereziak izan beharko ditu, eta ongi komunikatuta egon beharko da Kontsulta Gelarekin, Sailkapen Gelarekin eta administrazioko langileen eremuarekin.

Espazio hau multzotan erraz banatzeko modukoa izan beharko da, agiriak biltegitatzeko espazio zehatzak sortzeko; espazio osoak zein balizko espazio txikiagoek gehienez 2,50 metroko altuera librearen baldintza bete beharko dute.

Erabileraren gainkarga 2.500 Kg/m² izan beharko da.

Era berean, agirien biltegiak espazio hauek izango ditu:

- Lau biltegi arrunt, bakoitza 200 m²-koa, elkarrengandik gertu egongo direnak; agiriak paperezko euskarrian zaintzeko biltegiak izango dira. Bereizteko izu-itxidurak eta su-hesien estiloko ateak erabiliko dira.
- Tamaina handiko euskarrietarako biltegia, 30 m²-koa, biltegi arrunten eraikuntza-baldintza berdinekoak, higrometrikokoak, sutei eta tenperaturari dagozkienak.

- Euskarri berezietarako biltegia, 30 m²-koa, irudiak dituzten dokumentuak zaintzeko, biltegi arrunten eraikuntza-baldintza berdinekoak, higrometrikokoak, suteei eta tenperaturari dagozkienak.

3. AGIRIEN BILTEGIKO ERAIKUNTZA-BALDINTZAK

Zoladurak:

- Irristagaitzak, suaren aurkakoak, ahal bezain juntadura gutxirekin, erraz garbitzekoak eta zarata motelgailuekin.

Paramentuak:

- Jaisteko zorrotenik gabe, balizko hausturengatik.
- Pareta lauak, suaren aurkakoak eta hidrofugoak.

Ateak:

- Suen aurkako metalezko ateak, izu-itxidurekin.

4. INGURUNE-BALDINTZAK:

- Inguruneko tenperatura 15° eta 21° artekoa izan beharko da beti.
- Hezetasun erlatiboa %45 eta %65 artekoa izan behar da
- Termohigrometroak instalatuko dira.
- Barruko argiztapena ez da 100 lux baino gehiagokoa izango zoladura mailan instalazio guztian, eta 50ekoa compactusen kasuan.
- Pintura eta material guztiak hautsén aurkako produktuekin tratatutakoak izan beharko dira.

5. SEGURTASUNEN BALDINTZAK:

- Suteen detekzio automatikoa instalatzea: gas detektagailuak edo ionikoak.
- Uholdeak antzemateko instalazioak eta lapurreten aurkakoak.
- Itzaltze-instalazioak. Suteen hidranteak
- Ur lainoztatuko itzaltze-sistema finkoa
- Sprinklerrak.

8. ZEB.

8.1. Definizioak.

Net ZEB= Net Zero Energy Building, Energia Garbi Nuluko Eraikina: energia gutxi behar duenez, iturri berriztagarrietatik lortu beharko litzateke, energia balantzea zero izateko (eraikinak eskatutako energia energia berriztagarriaren iturriak erabiliz eraikinak ekoiztutakoaren berdina edo txikiagoa izango da).

nZEB= Nearly Zero Energy Building, energia ia nulua duen eraikina.

8.2. Proposamenaren zehaztapenak.

Proposamen guztiek diseinu-irizpide bezala energia garbi nuluko eraikina izango dute.
nZEB ERAIKINAK PLANTEATZEN DITUZTEN AUKERAK EZ DIRA ONARTUKO.



nZEB eraikinak (Leeds, Breeam, passivhaus, etab.) lortzen dituzten estandarrak onartuko dira, betiere Net ZEB estandarra lortzeko neurri osagarriekin osatuak badaude.

8.3. Inplementazioaren eskema.

Plegu honek Net ZEB helburua ez du estatikoki kontuan hartzen, dinamikoki baizik.

Aurrekoari erreparatuz, planteatutako helburua ez da inolaz ere ziurtagiria lortzea (nahiz eta hori posible izan), ezta proiektuan sistemak, eraikitze moduak, etab. inplementatzea ere, eraikuntzaren fasean praktikan jarri eta bertan energia baldintzatzaileak amaitzeko (modu estatikoa).

Bestela, urrutiko konexioan eta egiazko denboran kontsumoko kontrol parametroetatik planteatutako da, eraikinaren errealitatea neurtzeko, proiektuan planteatutako gertaera teorikoa betetzen dela egiaztatzeko, eraginkortasunaren irizpidepean erabileraren eta kontsumoaren artean egokitzapena kudeatzeko, klimatizazioa, igotze-sistemak, birkargatzeko estazioak, urak, sare adimentsuak, kontsumoen monitorizazioa kudeatzeko eta egiazko denboran eraikinaren energia kudeatzeko. Helburua energia kontsumoa une bakoitzean egindako erabilerari moldatzea da (modu dinamikoa).

Horretarako, ezinbestekoa da kostu/irabazi binomioa optimizatzeko diseinu metodoa. Lehenik eta behin, energia aurreztera bideratutako diseinuaren estrategia pasiboek baliatuko da (diseinu bioklimatikoa); bigarrenaz, energia-eraginkortasunaren estrategia aktiboek erreparatu zaie (sistema, ekipo eta material eraginkorrak); eta, azkenik, energia ekoizteko estrategia aktibo berriztagarriak kontuan hartuko dira.

Sinatzen duen teknikaria oinarritzko proiektuaren mailan aipatu helburu guztiak argi eta garbi ezin direla adierazi jakitun da, proiektuaren garapen mailak ez baitu uzten. Hala eta guztiz ere, bere ustez diseinuaren estrategia pasiboak oso-osorik adieraz daitezke eta, beraz, hala egin behar da. Energia eraginkortasunaren estrategia aktiboek dagokienez, ordea, azal eta aurre ikus daitezke. Amaitzeko, hainbat irizpide eta baldintzatzaile zehatz daitezke, gauzatze proiektuan edo gauzatze proiektuetan pleguaren atal honetan adierazitakoa inplementatu eta lortzeko.

Lizitazioan entregatu behar den dokumentazioari dagokion atalean azaldu bezala, helburuei buruzko hausnarketa eta analisia burutu beharko da eta atal honetan planteatutakoa inplementatzeko proposamena gauzatu ere bai.


Alderdi horiek betetzen ez dituen edota ezinezko bihurtzen dituen edozein proposamen berehala lizitaziotik BAZTERTUKO da, aipatu den bezala Energia Garbi Nuluko Eraikina lortzearen premisa lehentasunezkoa eta ezin utzizkoa baita.

III. KAPITULUA. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHAR OROKORRAK

9. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aiboa Berria eraikineko proiektua idazteko zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko materialak izango dira.

Aurrekoa betetzea adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da oso-osorik eta, ez badu betetzen, udalak zehapenak jarri ahal izango ditu.



24

Enpresa adjudikaziodunak, zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko asmoz, gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu.

9.1. Adjudikatutako langileak

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak arrazionaltasunez egin eta antolatze gutxieneko langileak izango ditu, eta pleguko eskakizunak betetzeko prestakuntza egokia izango dute. Ildo horri jarraiki, kaudimenez onartuko dituzte ordainsari, pizgarri, gizarte-karga eta gainerako obligazio guztiak; gainera, une bakoitzean indarrean dagoen legeria eta hitzarmenak beteko dituzte, eta Getxoko Udala enpresa adjudikaziodunaren eta langileen arteko harremanei buruzko erantzukizun guztiaz salbuetsita egongo da.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko azpiegitura izan beharko du honakoak gauzatzeko: administrazio-betekizunak, erosketak, kobrantzak, ordainketak, fakturazioak, parteak, etab.

Esleitutako gutxieneko langileak ondoren adierazitakoak dira:

Proiektuaren kudeatzailea: enpresa adjudikaziodunak izendatuko du, eta hari eskuordetuko zaio kontratuaren adjudikazioagatik beregain hartutako kontratu-erantzukizuna. Goi mailako arkitektoaren prestakuntza izango du eta proiektua kudeatu nahiz taldeak koordinatzeko esperientzia eta prestakuntza akademikoa izango du. Eguneroko lana kudeatzeaz arduratuko da, eta solaskide nagusia izango da.

Enpresa adjudikaziodunak proposatutako proiektuko talde guztiak prestakuntza nahiz esperientzia egokiak dituela egiaztatu beharko du: titulazioa eta ibilbide profesionala. Gainera, proposatutako taldeko aditu bakoitzak beteko dituen funtzioak zehaztu beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak eskainitako langileen oporraldiak eta bajak ordezkatzeko ditu, kostu osagarriak gabe.

Aurkeztutako eskaintzaren barruan, beharrezkoa izango da idatz-zati honetan adierazitakoaren arabera organigrama bat eranstea, eta, bertan, goian aipatutako lanpostuak beteko dituzten pertsonen izen-abizenak jaso beharko dira. Organigrama hori sartzen ez bada edo lanpostuak beteko dituzten pertsonen izenak jasotzen ez badira edo hemen adierazitako pertsonak aldatzen badira, lizitatzailerak automatikoki baztertua geratuko da.

Eskaintza egindakoan, eta goian adierazitako organigrama —lanpostu bakoitza beteko duen pertsonaren izena barne— proposatu ondoren, proposatutako pertsonak aldatzeko beharrezkoa izango da udaleko zerbitzu teknikoetan idatzizko aldaketa-proposamena aurkeztea, eta udaleko zerbitzu teknikoek proposamen hori onetsi beharko dute. Betekizun hori ez betetzeak kontratua ez betetzea ekarriko du eta dagozkion zehapenak eragingo ditu.

Udalak, bere ordezkari teknikoaren bitartez, adjudikaziodunak proposatutako adituak ordezkatzeko uka dezake, esperientzia eta ezagutzak egokiak ez direla iruditzen bazaio. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi ahalko da, baldintzak hautsi egin direlako.





Udalak, udal-ordezkarari teknikoaren bidez, eskubidea dauka zerbitzura adjudikatutako langiletako edozein ordezka dadin eskatzeko, baldin eta, bere ustez, pertsona hori ez bada egokia bere funtzioak betetzeko.

Udalak ez dio kontratu honen adjudikaziodunari bere langilerik lagako kontratuaren xede diren lanak egikaritzeko.

Adjudikazioduna arduratu beharko da lanak egingo dituzten langileek beharrezko baliabide teknikoak dituztela eta horiek behar bezala identifikatuta daudela zaintzeaz.

Plantillako gutxieneko langileez gain, lanak behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren profesional espezializatuak kontratatuko dira.

Nolanahi ere, lanak egikaritzeko orduan, enpresa adjudikaziodunak ezin izango du atzerapen- edo huts-arrazoi bezala alegatu plegu honek gutxienez eskatzen dituen langileak nahikoak ez direla.

Atal honetan adierazitako langileekin, lizitatzailleak adierazitako prestakuntzak bete ezingo balitu, langile gehiago aurkeztu ahalko dira, harik eta prestakuntza guztiak betetzen diren arte.

9.2. Lan-antolaketa

Taldeen oporraldiek proiektuaren garapen egokian ez dute eraginik izango, eta enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da kalitatezko zerbitzu bat ematen jarraitzea.

Adjudikaziodunak baldintza plegu honetan zehaztutako eskakizunak betetzeko material egokia izan beharko du, bai ekipoak, bai programa informatikoak eta beste aplikazio batzuk, baita jarduera profesionala bermatzen duten lokalak eta azpiegitura ere. Proiektuko taldeari esleitutako langileek lana egikaritzeko beharrezko ekipoak izan beharko dituzte. Enpresa adjudikaziodunaren konturakoa izango da horiek zuzkitzea, eta udalari ez dio kostu osagarriarik eragingo. Ekipoak, programa informatikoak, aplikazioak eta gainerako baliabideak egikaritzen den lanbideko berariazko eskaerak betetzeko beharrezkoak izango dira. Ekipo horien matxura edo mantentze-lanen kasuan, ezaugarri bereko beste batzuk jarriko dituzte, kostu osagarriarik gabe.

Joan-etorrien eta erregaiei kostuak adjudikaziodunaren pentzudan geratuko dira.

9.3. Segurtasuna eta higiena

Adjudikaziodunak egunean egon beharko du segurtasun eta higieneko gaietan. Nahitaez bete beharko dituzte segurtasun eta babes neurriak.

IV. KAPITULUA. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK

10. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.

Zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak erantzukizun zibilaren aseguruia izan beharko du, gutxienez 300.000 euroko zenbatekoa estali beharko duena. Halaber, enpresaren aseguru kolektiboak izango ditu.

Emandako zerbitzuaren ondorioz udalekoak ez diren hirugarrenei, udalari edo haren langile edo enpresa adjudikazioduneko langileei eragin ahal zaizkien istripu edo kalteak estali beharko ditu polizak.

11. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Adjudikazioduna izango da lanak ez betetzeagatik edo kontratu honen xede diren lanak gaizki burutzeagatik gerta edo eragin daitezkeen istripuen, kalteen, galeren eta falten erantzulea.

Era berean, zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatu beharko du, kontratatutako zerbitzuaren funtzionamenduen agerian utzitako akats edo hutsegiteak ahalik eta bizkorren konponduz.

12. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Adjudikazioduna edo eskuordetutako ordezkaria kasu guztietan Getxoko Udalaren aurrean erantzule eta solaskide bakarra izango da, plegu honen ondorioz sortu eta adjudikazio-kontratuan berretsitako betebeharrak guztiekiko.

Adjudikazioduna, plegu honetan jasotako xehetasunak betetzeaz gainera, indarreko beste edozein lege-xedapen bete beharko du, edo kontratuak iraun bitartean indarrean dagoena, baldin eta maila guztietako betebeharrak ekonomikoei eta fiskalei eragiten badie edo zerikusia badauka kontratuarekin, lan-istripuarekin, lan-aseguruarekin, laneko segurtasunarekin eta higieenarekin eta izaera sozialeko aurrekariarekin edo ondorioekin.

Adjudikaziodunak kalitatezko zerbitzua eman beharko du, eta zerbitzuan barne hartzen diren lanetan eragiten duten udal ordenantzetan ezarritako guztia bete beharko du. Bestalde, lanek, langileek eta kontratua betetzeko eman behar dituen zerbitzu horiek egitean erabilitako baliabideek eragindako istripu edo kalte guztien erantzulea izango da.

12.1. Datuen babesa eta konfidentzialtasun-klausula

Adjudikaziodunak konfidentzialtasun osoa gorde beharko du bere lanaren ondorioz jakiten duen edozein datuarekin.

Bereziki, datu pertsonalak eta datu konfidentzialak tratatzeko konpromisoa hartuko du adjudikaziodunak, Getxoko Udalak emandako jarraibideen arabera. Horrela, ezin izango ditu erabili edo aplikatu plegu honetan adierazitakoa ez den beste helburu baterako, ez eta hirugarrenei jakinarazi ere, Getxoko Udalaren idatzizko baimena eskuratu ezean.



13. LANAK ZAINTEA

Udalak ez du erantzukizunik hartuko adjudikaziodunak lana egin eta zerbitzua garatu bitartean udal-instalazioetan gorde dituen ekipo eta baliabide teknikoaren segurtasunaren gainean. Kontratatutak, bidezkoa baderitza, eta bere kontura, zaintza-zerbitzu bat ezarri ahalko du, lanek irauten duten denboran.

V. KAPITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

14. ZEHAPEN ARAUBIDEA

14.1. Tipifikazioa

- Ezinbestekoa da enpresa adjudikaziodunak kontratatutako lanaren izaerara egokitzen den eta kontratu horretan sortutako beharrei erantzuteko gai den antolaketa bat izatea. Hori ez bada betetzen, adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da oso-osorik, eta udalak arau-hauste arintzat hartu ahalko du.
- Adjudikaziodunak, kontratua sinatzeko orduan eta kontratuak irauten duen bitartean, erantzukizun zibileko aseguru poliza bat izan beharko du 300.000 euroko (hirurehun mila euro) gutxieneko estaldurarekin. Emakidadunak ez badu betebeharrak hori betetzen, kontratua suntsiaraziko da.
- Eskaintza egindakoan, adjudikaziodunak organigrama proposatu beharko du, lanpostu bakoitza beteko duen pertsonaren izena jasota, eta, proposatutako pertsonak aldatzeko, beharrezkoa izango da udaleko zerbitzu teknikoetan idatzizko aldaketa-proposamena aurkeztea, gutxienez hamar egun lehenago. Udaleko zerbitzu teknikoek proposamen hori onetsi beharko dute. Ez betetze horrek kontratua suntsiaraziko du, plegu honen 9.1. artikulua jasotzen duen moduan.
- Udal honek arau-hauste larritzat joko du plegu honetan ezarritako lanak entregatzeko epeak ez betetzea (hilabete baino gehiagokoak).
Xede horietarako, dokumentazioa zati batean ematen bada edota dokumentazioa behar bezala entregatzen ez bada, ez dira baliozkotzat joko eta, beraz, epea zenbatzen jarraituko da.

Hala ere, kontratuaren ondorioetarako, arau-hauste zehagarria izango da pleguan zehaztutako eskakizunen edozein urratze, egiteagatik nahiz ez egiteagatik.

Zehatu daitezkeen arau-haustek euren garrantziaren arabera sailkatuko dira: ARINAK, LARRIAK EDO OSO LARRIAK izan daitezke, honako irizpide hauen arabera:

- **ARAU-HAUSTE ARINA:** zerbitzuak ematea eragozten dutenak, baldin eta ez badira gertatzen zerbitzuen ez-egiteen, utzikariaren edo asmo txarreko jarduketaren ondorioz, eta ez badute arriskurik sortzen pertsona edo gauzentzat, ez badute udal-jabetzaren bizitza ekonomikoa murrizten, eta ez badie eragozpenik sortzen erabiltzaileei.



▪ **ARAU-HAUSTE LARRIA:** asmo txarreko jarduketan, zerbitzua ez ematearen, utzikeriaren, udal-teknikariek emandako jarraibideak ez betetzearen, lanak oker egitearen eta hamar arau-hauste arin metatzearen ondorioz gertatzen direnak; bai eta agiri-faltsutzea egiteagatik ere, fakturretan nahiz azterketa edota agirietan. Halaber, arau-hauste larritzat joko dira proiektuari eskatu dakioken gutxieneko kalitatera iristen ez diren lanak entregatzea eta Getxoko Udalak data zehatzetarako eskatutako lanak ematean edo amaitzean izandako atzerapenak.

▪ **ARAU-HAUSTE OSO LARRIA:** izaera hori izango dute pertsonentzat arriskuren bat eragiten dutenek edo konfidentzialtasun-klausularen bat urratzen dutenek; bai eta hamar arau-hauste larri metatzeak ere.

14.2. Zehapenen zenbatekoa.

- **ARAU-HAUSTE ARINAK:** arau-hauste arin bakoitzeko 300 euroko isuna jarri ahal izango da gehienez.
- **ARAU-HAUSTE LARRIAK:** arau-hauste larri bakoitzeko 600 euroko isuna jarri ahal izango da gehienez.
- **ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK:** honelako arau-hausteez nolako eragina duten kontuan hartuta, 900 euro arteko isuna ezarri ahal izango zaio arau-hausleari, eta kasu jakin batzuetan kontratua indargabetu ahal izango da eta fidantza galdu.

VI. KAPITULUA. BESTE ALDERDI BATZUK

15. KONTRATISTAREN KAUDIMENA ETA SAILKAPENA

Kontratuko beharrak betetzeko adjudikaziodunaren egikaritze zuzena eta egokitasuna bermatzeko asmoz, dagokion kaudimena egiaztatu beharko da, **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean (SPKLTB) ezarritakoa betez eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 78. artikuluetan onartua.**

Lizitatzailerek kaudimen ekonomiko edo finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko dituzte, eta horretarako bitarteko **hautetako bat** hautatu beharko dute:

- **Kaudimen ekonomiko edo finantzarioa** 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguruaren bitartez egiaztatu ahal izango da.

- **Gaitasun tekniko eta profesionalari** dagokionez: azkeneko bost urteetan eraikuntza obretan egindako lanen zerrendarekin egiaztatuko da eta gauzatze egokiaren ziurtagiriak izango dituzte. Ziurtagirietan zenbatekoa, datak eta gauzatze tokia adieraziko dira eta ogibidea arautzen duten arauekin bat egin al ziren eta behar bezala gauzatu al ziren zehaztuko da. Gauzatze urte handienera (5 urteak kontuan hartuta) urteko zenbatekoa 60.000 eurokoa edo hortik gorakoa (BEZa barne) izango da, eta lanak egiteko ekipamendu eta programa informatiko aproposak izatea.



Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak eman edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko entitate bat bada; hartzailea subjektu pribatu bat bada, aldiz, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, horrelako ziurtagiririk ez badago, enpresaburuaren adierazpenaren bitartez.

16. EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA

Lanak agiri honen kontzeptuetarako eskaintako prezioetan oinarrituz ordainduko dira, honako era honetan:

Plan Orokorra aldatzeko fasea

- Aldaketa puntual bat izapidetu eta onartzeko beharrezko dokumentu guztiak idaztea %3,0
- Legeak eta Herritarrek Parte Hartzeko Planak aurreikusitako herritarren balizko parte hartze bileretan bertaratzea.%1,0
- Testuategia idaztea%6,0

Oinarritzko Proiektuaren Fasea

- Oinarritzko proiektua idaztea.%50,0
- Segurtasun eta Osasun Azterlana%1,0

Eraispen fasea

- Eraikina eta lurzatiaren barrutian dauden gainerako eraikin guztiak eraisteko proiektua idaztea%3,0
- Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana idaztea%1,0
- Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarritzko Azterketa edo Segurtasun eta Osasun azterketa idaztea%1,0
- Eraispen obraren zuzendaritza%24,0
- Eraispen obraren azken dokumentazioa ematea%5,0
- Eraispenaren fasean hondakinak kudeatzeari buruzko dokumentazioa kontrolatzea. %5,0

Honela banatuta:

- Lanetako eraikuntza eta eraispen hondakinak araudiak eta hondakinen kudeaketari buruzko azterketan jasotako baldintzetan kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa izatea. %2,5
- Hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko azken txostena egitea, 112/2012 Dekretuak adierazten duen eduki eta irismenarekin. %2,5

Enpresa adjudikazioduna udaleko zerbitzu teknikoei plegu honetan aipatutako eguneratutako dokumentazio guztia helarazteaz arduratuko da.

17. LIZITAZIOKO OINARRI-PREZIOA

Lizitazioaren oinarritzko prezioa 247.933,88 € izango da gehi % 21eko BEZari dagokion 52.066,12 euroko zenbatekoa. Guztira, 300.000,00 € BEZa barne kontratu osorako.

30



18. KONTRATUAREN EPEAK

Plan Orokorra aldatzeko fasea

- Aldaketa puntual bat izapidetu eta onartzeko beharrezko dokumentu guztiak idaztea 3 hilabete kontratua sinatzen denetik.
- Testu bategina idaztea 3 hilabete behin betiko onartzen denetik

Oinarritzko Proiektuaren Fasea

- Oinarritzko proiektua idaztea sei hilabete (*)
 - Segurtasun eta Osasun Azterlana sei hilabete (*)
- (*) Biak udal osoko bilkurak aldaketa puntuala behin betiko onartzen duenetik.

Eraispen fasea

- Eraikina eta lurzatiaren barrutian dauden gainerako eraikin guztiak eraisteko proiektua idaztea bi hilabete (*)
 - Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana idaztea bi hilabete (*)
 - Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarritzko Azterketa edo Segurtasun eta Osasun Azterketa idaztea bi hilabete (*)
- (*) Biak udal osoko bilkurak aldaketa puntualari hasierako onarpena ematen dionetik.
- Eraispen obraren zuzendaritza Harrera akta sinatu ondoren
 - Eraispen obraren azken dokumentazioa ematea 1 hilabete (*)
 - Eraispenaren fasean hondakinak kudeatzeari buruzko dokumentazioa kontrolatzea. 1 hilabete (*)
- (*) Harrera akta sinatzen denetik

19. PRESTAZIOAK IKUSKATZEA

Getxoko Udaleko organo arduradunei dagokie adjudikaziodunari eskatutako lanak ikuskatzea, jardueren prezioek une oro aldez aurretiko hasierako balorazioa dutela kontuan hartuta.

Prestazioak ondo bete daitezen, Getxoko Udalak adjudikaziodunari oinarritzko datu tekniko, administratibo edo bereziak eman beharko dizkio.

Ondorio horietarako, adjudikaziodunak, xedatzen diren epeetan, fase desberdinak aurkeztu beharko ditu udalean, Getxoko Udaleko organo arduradunek onartu ditzaten.

Ikuskapen-zeregin hori betetz, eta lan horiek beharretara, arau teknikoetara eta emandako prezioetara egokitzen direla bermatzeko asmoz, Getxoko Udaleko organo arduradunek beharrezko jarraibideak eman ahalko dizkiote adjudikaziodunari, eta azken horrek nahitaez bete beharko ditu.

Era berean, Getxoko Udaleko organo arduradunek izendatutako langileak aldian-aldian adjudikaziodunaren bulego, lantegi eta instalazioetara joan ahalko dira, beharrezkotzat jotzen bada, edozein lan era egokian garatzen ari dela egiaztatzeko eta planteatu daitezkeen gaiak ebazteko.





20. AGIRI TEKNIKOAK AURKEZTEA

Lehiaketan parte hartu nahi duten lizitatzailleek, eskaintza teknikoaren dokumentazioaren barruan, eta deialdiaren iragarkian ezarritako epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- **Zerbitzuaosatzen duten pertsonen organigrama.** Bertan berariaz jaso beharko dira, gutxienez, izen-abizenak, titulazioa eta eskaintako zerbitzuaren barruan adjudikatu zaien lanpostua.
- Taldeko kide guztien **Curriculum Vitae** txiki bat erantsiko da. Lizitazioan eskaintako lantaldea udal zerbitzu teknikoek onartu arte ezingo da inolako aldaketarik egin lantalde horren osieran.

- **Proposamen teknikoa**

Lizitazio-fasean egiten diren proposamen teknikoek elementu hauek izango dituzte:

- Hartutako konponbide orokorren memoria justifikagarria
- Eraikina eraikitze bi faseen bideragarritasun-memoria
- Net ZEB estrategiaren txostena.
- Solairu, altxaera eta atalen planoak, eskalan, mugatu gabe; proiektua ezin hobeto azaldu behar dute.
- Aurrekontuaren aurrerapena estimazio orokorrarekin.

Dokumentazio guztia DIN A3 tamainan aurkeztuko da.

Getxon, 2016ko maiatzaren 23an
UDAL ARKITEKTOA
Urko Balziskueta Flórez




I. ERANSKINA


33



II. ERANSKINA

[Handwritten signature]



D. B. ...